BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2730

EBAZPENA, 2012ko maiatzaren 22koa, Hezkuntzako sailburuordearena, erakunde publiko eta pribatuak irakasleen etengabeko prestakuntza-plana aurrera eramateko proiektuan Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritzeko deialdia ebazten duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 8ko Aginduaren bidez (2012-02-16ko EHAA), Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Plana garatzeko proiektuak aurkeztuz sail honekin batera lan egin nahi duten erakunde publiko eta pribatuei egiten zaie dei.

Balorazio eta azterketa batzordeak proposamena egin ondoren 3. multzora aurkeztu diren proiektuei buruz, aipatu aginduak aurreikusitakoaren arabera, eta deialdi-agindu horren 7. eta 10. artikuluetan ezarritako irizpideetan oinarrituz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean ageri diren 3. multzoko proiektuak onartzea.

Bigarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere esku izango du diru-laguntza deuseztatzea, baldin eta, matrikula egiteko hasierako epea igarota, jarduerak ez baditu bete proiektuaren gehienezko plazen % 40. Halakoetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jakinarazpena bidaliko die proiektu horien erakunde onuradunei.

Hirugarrena.– Ikastaroak egiteko baldintzak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta interesaturik dauden erakundeen artean erabakiko dira, betiere deialdi-aginduan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Laugarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean ageri diren eskaerak ez dira onartu eta bertan adierazten da zergatik.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, bere aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari; hilabeteko epea izango da horretarako, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 22a.

Hezkuntzako sailburuordea,
M.ª ANTONIA OZCARIZ RUBIO.

I. ERANSKINA

3. MULTZOA

Erakunde eskatzaileak / Prestakuntza-jarduerak			Dirulaguntza
Adarra: Colectivo Pedagógico/Pedagogi Erakundea			
	X108	Escuela infantil inclusiva: La atención a la diversidad en 0-6.	1.500,00
	X109	Escuela infantil inclusiva: Impulsar la participación y el aprendizaje.	1.500,00
Asoc. Cultural Isuri sormenezko zerbitzuak			
	X106	Scratch Eguna 2013	2.500,00
Asoc. Familias amigos y amigas de niños y niñas sordas (ULERTUZ)			
	X169	Alumnado con sordera en la escuela inclusiva: apoyo y orientación	2.000,00
Asoc. Psicopedagogia de Euskadi (APSIDE)			
	X270	7ª Jornadas de orientación académico-profesional:	3.000,00
BIHE Bigarren Hezkuntzako Zuzendarien Elkartea			
	X271	Hobetuz-Hobetu	5.000,00
Fondo Formación Euskadi			
	X129	Jornada: Inteligencia Emocional en la Pre/Adolescencia,	1.500,00
	X210	Jornada: Inteligencia Emocional en la Pre/Adolescencia	1.500,00
	X211	Jornada: Inteligencia Emocional en la Pre/Adolescencia	1.500,00
Fundación Donostia International Physics Center			
	X018	top@DIPC -Zientziarekin Solasean 2012	5.000,00
Fundacion Mirabide Fudazioa - Eureka! Zientzia Museoa (KutxaEspacio)			
	X098	II Encuentro Vidas Científicas	5.000,00
Fundación Nuevas Claves Educativas			
	X100	IX Congreso FNCE: Fuga de Talentos	5.000,00
Hik Hasi Euskal Heziketarako Elkartea			
	X207	Hik Hasi udako Topaketak	5.000,00
HUHEZI Koop.E. (Mondragon Unibertsitatea)			
	X230	Jakingarriak	5.000,00
Kale Dor Kayiko			
	X110	La identidad gitana (romanipen): Una clave para el exito escolar	1.500,00
	X153	La identidad gitana (romanipen): Una clave para el exito escolar	1.500,00
Murgibe SL			
	X275	Estudio sobre la incorporación de la coeducación en los centros educativos de Leioa	
Obispado de Bilbao (Delegación de Educación)			
	X296	Plan de formación profesorado de religión (Bizkaia)	5.000,00
Obispado de Donostia-San Sebastián (Delegación de Educación)			
	X297	Plan de formación profesorado de religión (Gipuzkoa)	3.000,00
Obispado de Vitoria-Gasteiz (Delegación de Educación)			
	X297	Plan de formación profesorado de religión (Alava)	2.000,00
Sarean. Euskal Eskola Publikoak Sarean			
	X022	Arabako Batzarra II	1.000,00
	X023	Bizkaiako BatzarraII	1.000,00
	X024	Gipuzkoako BatzarraII	1.000,00
	X025	32. Topaketa	2.000,00
Xangorin S.L.			
	X143	Hik hasi egitasmoa	5.000,00
Zerbikas Fundazioa			
	X205	Intercambio de experiencias de Aprendizaje y Servicio Solidario. Encuentros entre profesorado.	3.000,00
	X193	Guía de Aprendizaje y Servicio Solidario y acompañamiento educativo	4.000,00
		3. MULTZOA, GUZTIRA	**75.000,00**

II. ERANSKINA

3. MULTZOA

Erakunde eskatzaileak / Prestakuntza-jarduerak			Arrazoiak
AIC Gestión de capital intelectual, S.A.			(6)
	X242	Diversidad cultural en la educación secundaria	
Asoc. Psicopedagogia de Euskadi (APSIDE)			
	X223	8º Encuentro de Orientación y Atención a la diversidad	(6)
Fondo Formación Euskadi			
	X105	Jornada: Inteligencia Emocional en la Educación Infantil	(6)
	X202	Jornada: Inteligencia Emocional en la Educación Infantil	(6)
	X203	Jornada: Inteligencia Emocional en la Educación Infantil	(6)
	X142	Jornada: LOPD en el tratamiento de datos de menores	(6)
	X204	Jornada: LOPD en el tratamiento de datos de menores	(6)
	X206	Jornada: LOPD en el tratamiento de datos de menores	(6)
	X181	Jornada: Usando nuevas herramientas.- La WII como elemento educativo	(6)
	X179	Jornada: Vigilancia Tecnológica Educacional.- Nivel básico	(6)
	X180	Jornada: Vigilancia Tecnológica educacional.- Nivel Medio	(6)
Murgibe SL			
	X275	Estudio sobre la incorporación de la coeducación en los centros educativos de Leioa	(6)
Sociedad Coral de Bilbao			
	X290	La canción en el aula: Cómo, qué y por qué cantar	(6)

(6) Lehentasuna ez daukan proiektua. Agortu da 75.000,00 euroko aurrekontu-atala (deialdiaren 3.1 artikulua)